

Hego Euskal Herriko hondakin industrialak

Ezkutuan geratzen den errealitatea



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

1. Hego Euskal Herriko hondakin industrialen azterketa	3
2. ELAren balorazioa	10

1. HEGO EUSKAL HERRIKO HONDAKIN INDUSTRIALEN AZTERKETA

Hego Euskal Herriko ekonomian pisu handia du industriak. Bere ezaugarrien artean ez dago izaera zirkularrarena, hemengo industria lineala da, material berriztaezinen eta birziklaezinen oso menpekkoa, eta ekoiztu, kontsumitu eta botatzeari oinarritua. Honen ondorio dira gure lurraldean sortzen diren milaka tona hondakin industrial. Txosten honetan azaltzen diren datuek baieztatzen dute errealitate hori.


1.1. Hondakin industrialen sorrera

EAEn 2013 eta 2020 urteen artean sortutako hondakin industrialen kopurua ondorengo taulan ikus dezakegu, bai arriskutsuak direnak, bai arriskutsuak ez direnak. Batez beste, hondakin arriskutsuak hondakin industrial guztien %8,6 dira, zati txikia da, baina kudeaketa bereiztua behar dute.

EAE (1)	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Ez-arriskutsuak	3.254.731	3.583.072	3.535.977	3.307.978	3.140.442	3.448.313	3.473.803	3.266.349
Arriskutsuak	284.424	323.398	327.766	321.628	316.429	326.169	329.363	-----
H. Industrialak (2)	3.539.155	3.906.470	3.863.743	3.629.606	3.456.871	3.774.482	3.803.166	-----

(1) Datuak tonatan daude

(2) Hondakin industrialak, hondakin ez-arriskutsuen eta arriskutsuen batura dira. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kopuru hauetatik kanpo geratzen dira




Hondakin industrialen sorreraren eboluzioari dagokionez, azken hamarkadan gora behera handiak izan dira. 2014etik 2017ra beherakada izan zuten arren, ondoren goranzko joerari eutsi dio 2020 arte, pandemiaren ondorioz jardueraren beherakada eman eta hondakinen sorrera ere murriztu zen arte. Ondorengo daturik ez dugu, baina jarduera ekonomikoa berreskuratu den heinean, hondakin industrialen kopuruak ere gora egin duela aurreikus dezakegu.

Nafarroako datuei erreparatuz, hondakin arriskutsuek hondakin industrial guztien %4 suposatzen dute, batez beste.

Nafarroa (1)	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Ez-arriskutsuak	705.386	758.029	824.737	789.627	772.516	801.708	861.112	870.368	787.229	793.073
Arriskutsuak	32.845	32.902	31.135	30.017	30.812	33.485	33.094	38.201	36.079	36.914
H. Industrialak (2)	738.231	790.931	855.872	819.644	803.328	835.193	894.206	908.569	823.308	829.987

(1) Datuak tonatan daude

(2) Hondakin industrialak, hondakin ez-arriskutsuen eta arriskutsuen batura dira. Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kopuru hauetatik kanpo geratzen dira)



Azken hamarkadako hondakin industrialen sorrerari dagokionez, EAEko joera bera errepikatzen da Nafarroan ere. 2014tik 2017ra beherakada bat ikus dezakegu, baina ondoren igoera ematen da pandemia arte. Nafarroako datuetan 2021eko datuek baieztatzen dute aurretik esandakoa, pandemia ondoren berriro hondakin industrialen sorrerak gorantz jarraitu duela.


1.2. Hondakin industrialen sorrera sektoreka

Aurretik esan bezala, hondakin industrialak bi multzotan sailkatzen dira, ez-arriskutsuak eta arriskutsuak.


Hondakin ez-arriskutsuei dagokienez, EAEn 2020an hondakin gehien sortu zuten sektoreak prozesu termikoak, hondakinen kudeaketa, metalen mekanizatua, ontzi eta trapuena, eta egurra eta paperaren industriak izan ziren.




Nafarroako kasuan, 2021ean hondakin ez-arriskutsu gehien sortu zituzten sektoreak metalurgia, produktu mekanikoen fabrikazioa, autoen fabrikazioa, hondakinen kudeaketa eta elikagaien industria izan ziren.



Hondakin arriskutsuen kasuan, EAEn 2019an hondakin arriskutsu gehien prozesu termikoen industriak, metalen tratamenduak, erabilitako olioak, eta metalen mekanizatuak sortu zituzten.



Nafarroako kasuan, 2021ean hondakin arriskutsu gehien sortu zituzten sektoreak autoen fabrikazioa, produktu metalikoen fabrikazioa, metalurgia eta autoen konponketa tailerrak izan ziren.




Beraz, Hego Euskal Herriko ekonomian pisu handiena duten industria sektoreak dira hondakin gehien sortzen dutenak eta ondorioz, ekonomia zirkularretik urrunen daudenak. Horrek erakusten du ekonomiak eraldaketa sakona behar duela, erresilienteagoak izan gaitezen ikerketa askok aurreikusten duten epe labur eta ertainean izan dezakegun energia eta material eskasiaren aurrean.

1.3. Hondakin industrialen tratamendua


Hondakin industrialek jasotzen duten tratamendua ere hondakin ez-arriskutsu eta arriskutsuen artean bereiztu behar da. Gainera, hondain horietako asko baimendutako kudeatzaileek soilik tratatu ditzakete, eta teorian, kontrol estuago baten menpe daude.

EAEko hondakin ez-arriskutsuen kasuan, 2020an hondakinek jaso zuten tratamendua ondorengo grafikoan ikus dezakegu.



Hondakin ez-arriskutsuen %65 berrerabili edo birziklatu zen. %33 zabortegira joan zen eta % 2 erre egin zen.

Nafarroako hondakin ez arriskutsuen kasuan, hurrengo grafikoan ikus daiteke nolako tratamendua eman zitzaien 2021ean.




Hondakin ez-arriskutsuen %81 birziklatu zen Nafarroan eta %19 zabortegira joan zen.


Nafarroa eta EAEn hondakin ez-arriskutsuei ematen zaien tratamenduari dagokionez, Nafarroan birziklapen tasa askoz altuagoa dute.

Baina ekonomia zirkular baterantz egin behar bada, eta hala esaten dute Europako araudi guztiek, batez ere EAEn, bada non hobetu, errausketa alde batera utziz eta hondakin industrialen birziklapenerako inbertsioak eginez.


Datu hauen bilakaera ez da azken urteetan adierazgarria izan. Nafarroan, azken hamarkadan birziklapen tasak ez du aldaketarik izan.



EAEn aldiz, gorakada bat izan du birziklapenak, datua ere eskasagoa baitzen. Zaldibarko zabortegiaren hondamendia ere ikus daiteke datu hauetan. Bertara eramateko aukerarik ezean, zabortegietara eramandako hondakinak gutxiago izan baitziren 2020an.




Hondakin arriskutsuen kasuan, EAEn honako tratamendua eman zitzaien 2019an.





Hondakinen %65 birziklatu zen eta %34 zabortegira edo zabortegi berezietara eraman zen, zabortegi denek ez baitute hondakin arriskutsuak hartzeko baimenik. %2 erraustegira eraman zen.

Nafarroan ordean, hondakin arriskutsuen %37 soilik birziklatu zen 2021ean eta gainontzeko %63 zabotegira eraman zen.



Aurretik esan bezala, ekonomia zirkular baterantz egin behar bada, eta hala esaten dute Europako araudi guztiek, bada non hobetu, errausketa alde batera utziz eta hondakin industrialen birziklapenerako inbertsioak eginez.

Hondakin arriskutsuen tratamenduaren bilakaerari dagokionez ez da aldaketarik izan azken hamarkadan, ez EAEn, ez Nafarroan, ondorengo grafikoek erakusten dutenez.



Beraz, ezinbestekoa eta urgentziazkoa da hondakin industrialen birziklapen tasak igo eta ekonomia zirkular baterantz egiteko inbertsioak egitea.

3. ELAren BALORAZIOA

Hego Euskal Herriko hondakin industrialen kopurua etengabe gorantz doa, ekonomia kapitalistaren ezaugarri nagusienetako bat izanik gehiegizko hondakinen sorrera. Sarritan hondakinez hitz egiten denean hiri hondakinez hitz egiten da eta hondakin industrialak alde batera uzten dira. Kontuan izan behar da hondakin industrialak hiri hondakinak baino askoz gehiago direla. EAEn hondakin industrialak 2019an 6.674.779 tona izan ziren eta hiri hondakinak 1.142.223 tona. Nafarroan 2021ean hondakin

industrialak 829.987 tona izan ziren eta hiri hondakinak 284.106 tona. Beraz, hiri hondakinen birziklapenean jartzen den azpimarra, edo gehiago, jarri behar da hondakin industrialen gainean ere.

Kopuru handiegia sortzeaz gain, birziklapen tasan oraindik hobekuntza handiak egin daitezke material mota ezberdinen birziklapenean apustu egingo balitz. Baina etorkizunerako errausketan ari dira apustu egiten. Oraindik errausten den hondakin industrialen kopurua txikia den arren, EAEn hurrengo urteetarako iragarri diren hondakin industrialen tratamendu plantak erraustegiak dira, bai Bergaran paper hondakinentzat iragarri dena, bai Zumarragan plastikoen pirolisirako iragarri dena. Honen aurrean, tratamendu egokiagoak daudela gogorarazi behar zaie erabakiak hartu dituztenei, paper eta plaskikoaren birziklapenak aurrerapen handiak izan ditu eta erraustea baino teknologia eskuragarri hobeak daude.

Bestalde, oraindik ere zabortegetara eramaten den hondakin industrial kopurua oso handia da, eta Zaldibarren gertatutakoaren ondotik, hondakin industrialak arazo izugarria izaten jarraitzen dute. Zaldibarko zabortegetira eramaten ziren milaka tona hondakin ez dira desagertu, beste zabortegeti batzuetara eramaten dira orain, eta arazoak handiago egiten jarraitzen du. Benetan ekonomia zirkular bat nahi badugu eta hondakinak lehengai bezala berrerabiltzea bada helburua europar araudiak behartzen duen bezala, eta hainbatetan Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak esan duten bezala, birziklapen tasak areagotuko dituen teknologia behar dugu. Horretarako inbertsioak birziklapen plantetan egin behar dira, ez iragarri diren erraustegietan, eta antzekoetan.

Hondakin industrialen sorrerari sektoreka erreparatuta, metalurgia, mekanizatua, prozesu termikoak eta ibilgailuen fabrikazioa aipatu behar dira. Ekonomian pisu handia dute, enplegu asko sortzen dute, baina hondakin asko ere sortzen dute. Horretaz gain, energia eta material asko erabiltzen duten sektoreak dira. Ekonomia linealaren adibide garbiak dira beraz. Ekoiztean, kontsumitzean eta botatzean oinarritzen dira, eta ondorioz ekonomia zirkularrerantz eraldatzeko behar gehien duten sektoreak dira. Eraldaketa horrek etorkizun hurbilerako askok iragartzen duten energia eta material eskasiaren aurrean erreslienteago egingo die. Izan ere, europako hondakinen inguruko zuzentarau guztiak ekonomia zirkularra dute helburutzat: ekonomia lineala ekonomia zirkular batez ordezkatzeko, non behin eta berriz erabiliko diren hondakinak produktu edo lehengai berriak ekoizteko.

Beraz, gure ekonomia ez da zirkularra, baina izan behar da. Hori lortzeko ekoizpen eredua eraldatu eta dibertsifikatu behar da, material berriztagarri eta birziklagarrietan oinarritu, energia berriztagarriekin funtzionatu, industria sektore iraunkorrak garatu eta esportaziora zuzendu beharrean barne kontsumora begira jarri behar da, behar duguna soilik ekoiztuz. Paradigma aldaketa honen aurrean, ekonomiaren birkokapena eta gure ekoizpen, mugikortasun eta kontsumo eredua eraldatzeko etorkizun jasagarriago baterako ezinbesteko baldintzak izango dira .



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA